



BERTAKO / KANPOKO SORTZAILEENTZAKO EGONALDI-DEIALDIA

1- Aurkezpena

Tabakalerak egonaldi-programa bat jarri du martxan, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programak ostatua eskaintzen du. Arte-sorkuntzarako gunea den aldetik, laguntza-programa honen helburu nagusia arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honek, Tabakalerak dituen beste batzuek bezala, espazio bat sortu nahi du eragileak eta haien proiektuak elkarren ondoan garatu daitezen, egoiliarren eta eragile gonbidatuen artean lankidetzak sortzeko giroa eta aukera bultzatzeko helburuz.

2- Xedea

Deialdi honen xedea da egonaldi bat eskaintzea bertako kultur sortzaile eta eragileek proposatutako kanpoko artista edo kultur eragileei, proiektu bateratu bat edo proiektu bat elkarlanean garatu dezaten.

Egonaldiak arte-proiektuak bertan garatzen hasteko nahiz martxan dauden ekoizpen-proiektuak Tabakalera jarraitzeko izango dira, proiektua edozein formatu edo arte-alorretakoa dela ere eta edozein fasetan dagoela ere.

Egonaldiak bi eta sei aste arteko iraupena izango du, eta arte-proiektua garatzeko lekua, testuingurua eta denbora eskainiko ditu 6.kaluzulan adierazten den moduan.

3- Hautagaiak / Parte-hartzaileak

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko nazional edo atzeritarrek, dela eremu horretan jarduten dutelako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

Nolanahi ere, tokikoa ez den artista edo agente batekin batera tokiko artista edo agente bat aurkeztu behar da.

Horri dagokionez, tokiko artista edo agentetzat hartuko da Tabakaleraren ingurune hurbilean jarduten duena eta, modu batera edo bestera, EAEko kulturaren eta artearen arloari ekarpena egiten diona. Bestalde, tokikoa ez den artista edo agentetzat hartuko da Tabakaleraren ingurunearekin edo EAEko kulturaren eta artearen arloarekin harreman jarraitua ez duena.

4-Hautatzeko batzordea eta irizpideak

Onartutako proiektuek arte-jardunak garatzeko molde berriak arakatzeko eta proiektuari lotutako eragileen arteko lankidetzak eta harremana modu berrietan jorratzeko asmoa erakutsi behar dute. Alderdi hori proiektuaren berezko balioztatza joko da.

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalerak. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Berrikuntza eta orijinaltasuna, eta Tabakaleraren jarduera eta testuinguruari egiten zaion ekarpena.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik nahiz taldeko gainerako kideekin batera orain arte garatutako ibilbidearekin.
- Proiektua egokia izatea Tabakalerak dagoeneko jorratzen dituen lan-ildoan ikuspegitik.



- Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzea.
- Parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzaren harremanak sustatzea proiektuak.
- Testuinguru desberdinen artean arte-jarduerako joan-etorriko bideak sortzeko eta bertako nahiz kanpoko ikusleekiko elkarrekikotasun-harremana bilatzeko gaitasuna.

Tabakalerak proiektuak balioesteko, berezko eta kanpoko pertsonalak osatutako komisio mistoa eratuko du, goran aipatutako irizpideak jarraituko dituena.

Komisioak deialdia hutsik jo ahal izango du aurkeztutariko proiektuetariko inork meritu nahikorik ez duela biltzen iriztekotan.

5-Zuzkidura

Egonaldia Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

1. Joan-etorriko bidaia, kanpoko artista edo eragilearentzat, bere ohizko bizilekuti edo lekutik unean da-goen tokitik.
2. Asegurua medikua kanpoko artista edo eragilearentzat.
3. Apartamentu bat kanpoko eragilearentzat, guztiz hornitua (sukaldea, komuna, logela, lanerako txoko batekin, Internetarako sarbidea wifi bidez).
4. 1.000 € egonaldiko hilabete bakoitzeko, dieta eta mantenurako, eragile bakoitzarentzat. Taldeen kasuan, zenbateko orokor bat finkatuko da haien egonaldirako.
5. Lanerako espazio bat Tabakaleraren ekoizpen-gunean, oinarritzko behar guztiekin: argia, korronte-hartuneak, proiektu bakoitzerako oinarritzko altzariak.
6. Office-rako eta gune komunetarako sarbidea.
7. Tabakaleraren sorkuntza-liburutegi espezializatuko funtsetarako sarbidea.
8. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.
9. Laguntza kontzeptuala proiektua garatzeko, eta laguntza inguruko eragile eta proiektuak ezagutzeko, egoiliarrek hala eskatuz gero.

Horretaz gain, hurrengo klausulan aipatuko den batzordeak –hautatutako proiektua aintzat hartuta– laguntza ekonomiko gehigarria –gehienez 1.000 € garbi– eman ahal izango du egoki iritziz gero, produkzio-prozesuarekin lotutako gastu txikiak ordaintzeko; diru-laguntza produkzio horretara bideratu beharko da ezinbestean.

Hautatutako proiektuaren kasuan artista edo agentea –tokikoa ala ez tokikoa– kolektibo bat baldin bada (hainbat pertsona fisiko edo juridiko, baina 3. klausularen bigarren paragrafoan aipatzen den harremanik formalizatu behar izan gabe haien artean), prestazio horiek kolektiboak izendatzen duen pertsona fisikoari esleituko zaizkio, edo bestela, kolektiboak Tabakalerarako berariaz eta alde aurretik erabaki ostean, egoiliar izateari atxikitako prestazioen zenbatekoa kuantifikatuta (ahal den heinean) eta prestazio horietako zenbait kolektiboko kide bati, batzuei edo guztiei esleituta, guztizko balio baliokidean.

6- Egonaldiaren iraupena eta garapena

Egonaldiak bi eta sei aste arteko iraupena izango du, 2015eko azaro eta abendu bitartean. Batzordearekin batera adostuko da egonaldiaren iraupen zehatza, Tabakalerak bere programazioan barruan dituen aukera eta konpromisoen arabera.

7- Parte hartzeko baldintzak

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:



- Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak bertan behera uztea ekar lezake.
- Tabakaleran izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.
- Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartu ahal izango dira.
- Egonaldia obra edo argitalpenen bat ekoizteko erabiliz gero, Tabakaleraren izena jarri beharko da kredituetan.

8- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Izena emateko epea 2015eko uztailaren 14tik abuztuaren 16ra bitarte egongo da zabalik.

Izena emateko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

-Izena emateko orria, Tabakaleraren web-orritik deskargatutakoa eta behar bezala beteta; horrekin batera, jarraian aipatuko dugun dokumentazioa aurkeztu behar da.

- PDF formatuko (gehienez 10 mega) edo paperezko (gehienez 10 orrialde) dokumentu bat, honako datu hauekin:

- 1.Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia, jaioteguna. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
- 2.Sozietatearen CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).
- 3.Proiektuaren deskribapena eta hautagaiak zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakalerako egoiliar diren bitartean; halaber, egoiliar zenbat denboraz izan behar den ere adierazi beharko da, eta hautagaiak noiz duen egoiliar izateko aukera, betiere deialdiaren arabera (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
- 4.Tabakalerako egonaldiaren gutxi gorabeherako aurrekontua, bai eta premia guztien aurreikuspena ere.
- 5.Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia.
- 6.Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.

Hautatutako hautagaiak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 10 eguneko epean, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontaktzen hasita:

-NANaren, IFKren edo pasaportearen kopia.

-Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 60. artikuluan deskribatutako egoeraren batean sartuta ez egotearen adierazpena. Dokumentu hau Tabakalerako web-orritik deskargatu daiteke, eta modalitate bakoitzari dagokion deialdian aurkituko da.

Kolektiboen kasuan, adierazpen horrek hautagai guztiei buruzkoa izan beharko du.

9- Jabetza intelektual

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak lege dagozkiela bermatu behar dute; ildo berean, Tabakalerak modu baketsuan erabili ahal izango dituela bermatuko dute, eta berme hori beteko ez balute, Tabakalerak zuzenean edo zeharka jasan ditzakeen kalte edota galeren erantzukizunetik salbuesten dute esanbidez Tabakalera.



Hautatutako pertsonak Tabakalerari lagako dizkio proiektu osoari edo proiektuko elementuen zati bati nahiz proiektuaren garapenari dagozkion ustiapen- eta irudi-eskubideak, legez baimendutako gehieneko aldirako, mundu osoan, Tabakaleraren jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo liburuxkak paperean edo digitalean argitaratzeko edo jardueraren sustapenerako, baina merkataritza-jarduerak esanbidez alde batera utzita.

Aukeratutakoak Tabakalerari bere izena deialdi honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan erabiltzeko baimena emango dio, esanbidez.

10- Datuak babestea

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakaleraren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Mandasko dukea 32, Dosnotia. Parte-hartzaileak bere laguntzailearen baten datu pertsonalak ematen baditu, datuak Tabakalerari xede bererako jakinarazteko haren baimena izan beharko du.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoz bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa pgaraikideak@tabakalera.eu helbidera bidali, gaia honako hau duela: "sartzeko baimenak"; mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere aurkeztu beharko da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NANaren edo antzeko beste dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

11- Parte-hartzaileen irudi-eskubideak

Parte-hartzaileek Tabakalerako guneetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenerako erabiltzarren; era berean, erabilera hori baimenduko dute.

Hori guztia ohorerako eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio guztiak alde batera utzita, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Eremu horretakoa ez den beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da.

12- Oinarriak onartzea

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +:

pgaraikideak@tabakalera.eu

943011311

www.tabakalera.eu